

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Alkatearen eginkizunak lehenengo alkateordeari eskuordetzea

Bilarko alkate-lehendakariak, alkatearen ekainaren 20ko 55/2025 Ebazpenaren bidez, hau
Ebatzi du

LEHENENGOA.- Joana del Hoyo Fernandez lehen alkateordeari eskuordetzea alkatearen eginkizun guztiak 2025eko ekainaren 23tik uztailaren 30era bitartean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Eskuordetzearen barne daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta kasuan kasuko administrazio prozedurak ebaztekoa ere, hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzak hartuta.

HIRUGARRENA.- Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta hartutako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, alde zuzenetik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 115. artikuluan xedatzen duenez.

LAUGARRENA.- Dekretu honen bidez eskuordea izendatzeko, organo eskuordearen onarpena behar da, eta ulertuko da isilbidez eman duela onarpen hori baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hiru egun balioduneko epearen barruan.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

SEIGARRENA.- Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan eskuordetzei buruz xedatutakoak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

Bilar, 2025eko ekainaren 20a

Alkate-lehendakaria
ENRIQUE PÉREZ MAZO